

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**

2012ko apirilaren 13a

315. zenbakia. 23. urtea



## Lagun eta lankideak

Nieves Blazquez eta Elena Arrillaga koadrilako lagunak dira, txikitatik eta, horrez gain, ia 30 urte daramatzate elkarrekin lanean, ONCEren bulegoetan.

**05**

**Orioko kontuak**

Zigor handiena

**11**

**Aiako berri**

Landare berezien azoka

**21**

**Gaia emanda**

El Conquistador

**25**

**Herritarra**

Ingemako teknikariak

**2GURPIL**

Bosgarritik 2 - 8 x 20010 Orio (Gipuzkoa)

TEL: 943 330 880 www.2garpil.com

**agirresarobe**  
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

- OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
- ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
- FATXADEN ERABERRITZEAK
- IGOGAILUEN PROIEKTUAK
- GREMIO KOORDINAKUNTZA
- INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 5, 5. BULEGOA, ZARAUZ  
SORJA AGIRRESAROBEL ARKITEKTOA 635 731732

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**ARKAITZ Taberna**

Pinxoak,  
plater konbinatuak  
eta ogitarako mundialak

ABESLARI KALEA, 11 Tel: 943 83 16 57

**LUXARBE**  
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestuak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 59 59 00

**azkue**

Tf: 943 13 04 38

**Allianz**

Marigre Zaldua  
aseguru agentea

Euzko Ondo, 10 behe-oina  
Telefonoa: 943 13 47 80  
fax: 943 51 57 52  
e-maila: zalkua.dolores.pa@allianz.es

Kinkladenda - Uma arropa

**argine**

www.lasnet.com/argine  
Tel: 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARIEI TXARTELAREKIN

edariologia

**ANTILLA**  
jateetxea

Nabarra Kalea, 2 - TEL: 943 83 21 00

**azkue**  
karrozeria

Ubagun Industrialdea, 7 20809 Aia-Orio  
Tlfax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

**BARAKA**  
estilo berria

Hartzaileentzako Pinxoak Plater konbinatuak Urteko jarraitza

943 13 13 12 Aitor

**Dorronoro Denda**

1963tik zure ondoan

**BETIKO DENDA**

Tel 943 83 09 37

**Automóviles ZARAUZ**

ETIKEN ZERBITZU DEIALA

ZARAUZ, TEL. 943 13 13 30

**GaleBask S.L.**  
Berrikuntzak  
Gremioen arteko koordinazioa

638 610 349  
Tel./Fax: 943 134 717  
galebask@hotmail.com

www.galebask.com  
Kale Nagusia, 2 -bajo  
20810 ORIO

Igo zaitetz haize berrietara!

**Galema I**

943890116-677119934  
galema1orio@hotmail.com

## Lasartek Euskal Herriari

**1**

Gu zazpi senide ama baten  
besotan  
Zorionez hazi ginan lur maite  
hontan  
Ama zu askotan  
zaitut nik gogotan  
Ta hasi naiz bertsoan  
Atsegin osotan  
Maitasun gozotan  
Zu eskertu asmotan

**2**

Zazpi senideok elkartuko  
bagina  
Guk amaren nahia gendukake  
egina  
Amodio fina  
Zer gauz atsegina  
Berez datorren grina  
Gure maitemina  
Beti da berdina  
Batu nahi ta ezina

**3**

O! Euskal Herria politez ta  
ederrez  
Zu berdintzekorik aurkitzen ez  
da errez  
Pozaren indarrez  
Goxo irribarrez  
Bazeundeke ezerrez  
Sarritan negarrez  
zaude zoritxarrez  
Penaz urtu beharrez

**4**

Agur ta laztan bat Euskal  
Herria zuri  
Eta goraintziak lagun maite  
batzuri  
Nahigabe ugari  
Sortzen zaigu guri  
Hau garbi da ageri  
Jaso bihotz hori  
Ez bera erori  
Ez malkorik ixuri

315

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur Etxea,**  
**Eusko Gudari, 26**  
**20810 Orio**  
**943 831 527**  
**karkara@karkara.com**  
**www.karkara.com**

### Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

### Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

### Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegia

### Erredakzio taldea

Pat Cowie,  
Miren Etxeberria,  
iker Gurrutaga, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

### Publizitatea

Pat Cowie

### Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze  
eta Iker Gurrutxaga

### Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria  
eta Jabier Zabaleta

### Ale honetako

#### laguntzaileak

Iñigo Gaiton,  
Iñaki Iturain,  
Joxe Luis Korta,  
Manuel Lasarte  
eta Itziar Urretabizkaia

### Laguntzaileak

Xabier Sukia

### Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

### Banatzzaileak

Cristina Burlacu eta  
Iban Recio (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain  
hartzen aldizkarian  
adierazitako esanetan edota  
iritzien erantzukizunik.  
KARKARAN argitaratutakoa  
berreman daiteke, osorik edo  
zatika, baldin eta iturria  
aipatzen bada.



### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

### Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin  
(695 780 720)

edo [publizitatea@karkara.com](mailto:publizitatea@karkara.com)  
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

### LAGUNTZAILEAK



### EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea



## Bizikletak aparkatzeko tokiak direla eta

Ez nuen gustuko izan azken KARKARAKO zoriotxarrak atala; ez, ez. Bizikletak aparkatu daitezkeen lekuen zerrenda azaldu zen bertan. Sentitzen dut, baina, nik uste, inori traba egiten ez badio, bizikletak utz daitezkeela toki horietatik kanpo.

Gizabidez jokatzera da kontua. Ez al dugu ba autoa bazterrera laga behar? Gogoan izan autoak herriko ia kale guzti-guztietan aparka daitezkeela –tokia bilatuz gero behintzat–. Bizikletan ere ibiltzen garenok zergatik ezin dugu halakorik egin? ■ **Imanol Manterola**

## Errieta egin zigun

Sagardotegi batean errieta eman zigun juntako gizon batek, silla hartu eta banketa uzteagatik. Edadetuok nahiago izaten ditugu bizkarra daukaten sillak, motibo askorengatik, eta horrela gertatu zen.

Bestalde, herriko jaunak eserita zeuden mahaian den-denak sillak zituzten eta han esertzen zirenetako asko gazteak ziren. Hori pixka bat kontuan hartu beharko litzateke. ■ **Herritar bat**

## Lehenengo eskola nolakoa zen ezagutzeko

Garai bateko eskola materiala bilatzera animatzen zaituztegu, belaunaldi arteko proiektuaren barruan, maiatzean, Orion egingo den erakusketan parte hartzeko.

Bilduko dugun materiala:  
– Garai bateko eskola materiala: liburuak, koadernoak...  
– Garai bateko eskolako argazkiak.  
– Nahi izanez gero, material hori bilatu duten pertsonen argazkia.

Materiala apirilaren 20rako Orioko Kultur Etxera eraman behar da. Erakusketak bukatu ondoren, ekarri duen bakoitzari itzuli egingo zaio berea. ■ **Ainara Tomasena**. Matia Fundazioko teknikaria



# karkarak behar zaitu

## Gutunerako oharrak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com)

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-rekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du esku-titzak laburtzeko eskubidea.

## Laguntzaile kanpainak martxan jarraitzen du

Laguntzaile berri batzuk gehiago egin baditugu ere, oraindik gehiago behar ditu KARKARAK. Gogoratu apirilaren 30a baino lehen egiten zaretenontzat eguneko menu bat jateko opari-txartela izango duzuela. Zalantzan baldin bazaude, uxatu itzazu zalantza guztiak, uste ez baduzu ere, KARKARAK zu ere behar zaitu-eta!

# Zigorrik handiena ezarri diote Amaia Azkueren ustezko hiltzaileari

Hamar urteko atxiloa eta beste bost urteko zaintzapeko askatasuna ere ezarri diote eta Azkueren familiak 922.000 euroko kalteordaina jasoko du. Auzipetuaren defentsak errekurtsioa aurkeztuko du.

Hilketa gertatu eta urtebetera eman da Amaia Azkueren auziko sententzia. Amaia Azkue 2011ko martxoaren 16an hil zuten eta Azpeitiako Ibai-Eder urtegian bota haren gorpua. Bortxaz hil zutela adierazi zuen poliziak.

Ertzaintzak denbora luze ikertu eta gero, abuztuan, gazte batek Azkoitiko Ertzain-etxean aurkeztu zen, bere burua salatuz. Artean adin txikikoa zen ustezko hiltzailea eta, epailearen aurretik pasa ondoren, Zumarragako adingabekoen zentrorera eraman zuten. Dena dela, gaztearen esanetan kontraesan asko zegoe-la-eta, ikerketak aurrera jarraitu zuen eta sumarioak sekretupean.

## Epaiketa ia urtebetera

2012ko martxoaren 12an, astelehenarekin, hasi zen Azkueren auziko epaiketa Donostian. Ustezko hiltzailea izan zen lehena hitza hartzen eta, ordura arte esandakoen kontra, ukatu egin zuen Amaia Azkue hil zuenik. Bertsio berrian beste batek hil zuela eta bera tartean harrrapatu zuela esan zuen.

Epaiketa luzea izan zen, astebetetik gora, eta apirilaren 2an eman zuten sententzia.

Epaileak hilketa, larderiaz egindako lapurreta, ibilgailuaren lapurreta eta bide-segurtasunaren aurkako delitua leporatu dizkio akusatuari eta horren gainean ezarri diote zigorra.

## Epaileak hilketa, larderiaz egindako lapurreta, ibilgailuaren lapurreta eta bide-segurtasunaren aurkako delitua leporatu dizkio

Auzipeturik zegoen 18 urteko gazteari 10 urteko zigorra ezarri diote –jarri zitekeen handiena– eta, behin hori betetakoan, 5 urteko zaintzapeko askatasuna izango du. Hamar urteko giltzapeko zigorra bete beharko du ustezko hiltzaileak eta ondorengo bost urteetan ezin izango du Getaria, Orío eta Zarautzera hurbildu. Horrez gain, bi urtez ezingo du Azkueren familiakoekin komunikatu, ezta haiek dauden tokitik 500 metro baino gertuago ere. Gainera, 922.000



Jende asko izan zen plazan azken elkarretaratzean ere. KARKARA

euroko kalte-ordaina eman beharko dio Azkueren familiari eta, horretarako, zigortuaren gurasoei erantzukizun zibil solidarioa ezarri die epaileak.

Dena dela, auzipetuaren defentsak epaia jakin zen egunean adierazi zuenez, errekurtsioa aurkezteko asmoa dute.

## Elkarretaratzeak

Epaiketa hasi zen egunetik, egunero-egunero gerturatu zen jende multzo bat Donostiako justizia jauregiko atarira *Justizia Amaia*rentzat zioen pankarta-ekin Azkue familiari babesa ematera.

Herrian bertan, hainbat bilkura egin ziren, oso jendetsuak guztiak. Udaletxeko balkoian *Amaia gogoan* jartzen zuten pankarta bat egon zen zintzilikatuta epaiketa hasi eta sententzia eman zen arte.

Azken kontzentrazioa, apirilaren 4an egin zen, 1971an jaiotako oriotarrek deituta. Han, pankarta kendu zuten balkoitik eta haren atzean jarri ziren plazan ordu laurden inguru iraun zuen elkarretaratzean. Herriar asko kexu dira ezarritako zigorra nahikoa ez delakoan.

## Arinegia da zigorra

### AZKUEFAMILIA

**S**ententziarekin gustura gauden **S**arren, handiena eman diotelako, oso zigor biguna iruditzen zaigu egin duenerako. Gainera, gehiago gustatuko litzaiguke urte horiek kartzelan beteko balitu adingabeen zentroan baino. Baina, legea horrela dagoenez, nahiz eta gustukoa ez izan, horren aurka ezin dugu ezer egin.

Bihotz-bihotzez eskertu nahi diegu egunero justizia auzitegira hurbildu diren guztiei, baita kontzentrazioetara etorri den jende guztiari eta, azkenik, beren babesa eman diguten herriar guztiei ere gure esker ona azaldu nahi diegu.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez eta besarkada bana guztioi.



Kanpainarako erabiliko duten irudian Saharako haurrak uretako kirolak egiten ikusten dira.

# Udan Saharako haurrak hartzeko kanpaina martxan aurten ere

Apirilaren 27a izango da Saharako errefuxiatuak hartzeko eskaera egiteko azken eguna. Familiek gutxieneko konpromiso batzuk bete behar dituzten arren, Udalaren laguntza izango dute.

Martxan jarri dute aurten ere Saharako haurrak hartzeko *Oporrak bakean* programa. Programa horren helburu nagusia bi hilabetez Saharako 7 eta 12 urte bitarteko haurrak errefuxiatu kanpamentuetatik ateratzea da. Bi hilabete horiek oso garrantzitsuak dira haur horientzat; alde batetik, desertuan udako bi hilabete horietako bero handienetatik babesten direlako eta, bestetik, elikadura eskasaren ondorioz sortutako osasun arazoak sendatzen zaizkielako.

Arantxa Arrillagak Saharako ume bat izan zuen iaz etxean eta, hark dioenez, *elkarbizitza haur horiekin oso aberasgarria da. Bai guretzat eta bai haurrarentzat ere. Haurrek saharar errefuxiatuen kanpamentuetan dituzten gauzetatik oso bestelakoak direnak ikusten eta ikasten dituzte, eta guk herri xume horrek dituen balioak, kultura eta egoera ezagutzeko aukera dugu. Askok uste du haur horientzat, hemen egon ondoren, oso gogorra dela bueltatzea han ezer ez daukatelako, eta hemen dena eduki dutelako.*

*Baina, ez da horrela; hemen gustura ibili arren, gusturago bueltatzen dira, azken finean etxea, gurasoak eta familia handituztelako.*

Harrera familiek gutxieneko konpromiso batzuk hartu behar dituzte eta hauek dira: bi hilabetez haurraren arduraren hartzea, haurra beste seme-alaba bat balitz bezala tratatzea eta familian txertatzea, elikadura orekatua eskaintzea, beharrezko mediku azterketetara eramatea eta, proiektua bukatzean, itzulera erraztea.

Gainera, laguntzak izango dituzte harrera familiek, haurraren ikastaro edo udalekuetako gastuak beregain hartzen baititu Udalak.

## Izena emateko

Programa honetan nahi duen guztiak parte hartu dezake, denbora libre eta gogoia bakarrik behar dira. Apirilaren 27a baino lehen egin behar da eskaera. Edozein zalantza argitzeko, deitu telefono honetara 667 832 574 -Arantxa-.

Oporrak bakean

## LABUR

### Politika

#### Gregorio Eskudero 10 urte egin ditu kartzelan

Gregorio Eskudero oriotarrak 10 urte egin ditu dagoeneko kartzelan eta, hori dela-eta, Herrira talde sortu berriak elkarretaratze berezia antolatu zuen Herriko Plazan. Elkarretaratzea martxoaren 30ean egin zen, ostiralarekin, iluntzeko zortzietan. Jende ugari parte hartu zuen eta hamar larrosa erabili zituzten Gregorioten kartzelaldiko urteak iruditatzeko. Ordu erdi iraun zuen ekitaldiak eta, bukaeran, presoan aldeko irudiekin osatutako puzzle bat egin zuten.

### Turismoa

#### Zabalik da kanpina

Bost hilabetez itxita egon ondoren, martxoaren 30ean zabaldu zuten kanpina. Eraberritze lan ugari egin dituzte: argiteria guztia konpontzea, bideak asfaltatzea, berdeguneak guztiz txukuntzea... Sarreran hesi berria ere jarriko dute autoen sartu-irtenak kontrolatzeko. Udazkenetik aurrera, bungalowak jarriko dituzte eta, horrela, udaberri eta udazkenean, kanpina jende gehiagok erabiltzea lortu nahi du Orioko Udalak.



# Argi-Ilun ikuskizuna aurkeztuko du Harribilek apirilaren 21ean Karelan

Koloreen arteko jolasa nagusi izango dela-eta, arropa berri koloretsuak prestatu dituzte emanaldirako. Dantzan eta musikan, ohiko pausu eta doinuak modernoekin uztartuko dituzte.

Harribil dantza taldea pauso berriak emanez taularatuko da apirilaren 21ean Karela kiroldegian. Pausoak baino, ikuskizuna bera izango da berria. Izan ere, *Mugak* eta *Urratsen oihartzunaren* ondoren, *Argi-Ilun* lanarekin etorriko dira oraingoan. Izenburuak berak dion bezala, argien eta ilunaren arteko kontrastea da lan berriaren oinarria. *Bestelako emanaldia egin nahi genuen eta, gaia aukeratzeko buruari buelta asko eman ondoren, koloreak erabiltzea erabaki genuen. Ez dugu gai zehatz bat hartu, koloreen inguruan bururatutako gauzak baliatu ditugujendearengana iristeko lana prestatzerakoan. Koloreen arteko jolasa izango da, ikuskizun koloretsua, dio Harribil taldeko Mirari Arriolak.*

Kolorea izango da, beraz, ardatz eta arropak ere halakoxeak izango dira, propio ikuskizunerako egindako berriak.

Oinarria euskal dantza izan arren, dantza eta pausu modernoagoekin uztartuz prestatu dituzte koreografiak. Doinuak ere horrelakoak izango dira. Mirari Arriolak dioen bezala, *kantuak denon artean aukeratu ditugu eta gero koreografiak taldeka pentsatu. Trikitia izango da nagusi, baina ukitu modernoarekin. Kantu irlandarren bat ere izango da, baita beste sorpresaren bat ere.*

## Sarrerak aurrez

Saioa 22:00etan hasiko da eta sarrerak han ere salgai izango diren arren, aurretik ere bada eskuratzeko aukera. Izan ere, Gabon tabernan, Kutixi kafetegian Kultur Etxean eta Karela kiroldegian daude 4 eurotan txartelak.

Estreinako ikuskizunaren ondoren, *Argi Ilun* lana beste herri batzuetan ere erakutsi nahi lukete Harribilekoek.



Harribileko dantzariak Herribilen. J. MANTEROLA

# Aho batez onartu zituen udalbatzak hiru mozio azken plenoan



Miriam Uranga falta zen plenoan. KARKARA

Gai gehienak aho batez onartu bazituzten ere, arraun teknifikazio zentroari buruzkoa eta Kasko Historikoaren birgaitzeari buruzkoa aurrera ateratzeko, kalitatezko botoa erabili zuen alkateak.

Martxoaren 28an izan zen ohiko udalbatzarra eta gai zerrenda luzea izan arren, lasai eta azkar joan zen bilera.

Gai gehienak aho batez onartu zituzten arren, egon zen ezadostasunik ere: arraun zentroko obren kontratua aldatzeari zegokion puntuan eta Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren gaian. EAJko sei zinegotziek ezezko bozka eman zuten bi gai horietan eta Bilduko eta Orainekoek baiezkoa. Oraineko zinegotzi bat falta zenez, berdinketa izan zen eta alkateak kalitatezko botoa erabili zuen bi gai horiek onartzeko.

Bestalde, Kultur Etxeko atezain lanpostuaren lanaldia aldatzeko gaia mahai gainean utzi zuten beste baterako, EAJk eskatuta.

Udalbatzarrean hiru mozio aurkeztu eta hirurak aho batez onartu zituzten: Bateragune auzia dela-eta kartzelatutakoen askatasuna eskatuz Bilduk aurkeztua; Nafarroa Bizirik Orion taldeak Nafarroako konkistari buruz aurkeztua; eta Aberri Egunean ikurrinak jartzeko Orainek egindako eskaria.

## Plaza oinezkoentzat

Bestalde, udalbatzarrean ez, baina Obra eta Zerbitzuen batzordean aho batez erabaki zuten Herriko Plaza, jaiegun eta asteburuetan oinezkoentzat izatea. Horrela, Udalak plazako espazioa irabazi nahi du herritarrak lasai ibiltzeko. Beraz, ibilgailuak moilatik barrena sartu eta Txankako bidetik aterako dira.

# OBB sofbol taldea liga nazionala irabazteko itxaropentsu

Lehen jardunaldian partida bat galdu eta bestea irabazi egin zuten. Txapeladuna den Bartzelonako Villadecansen aurka bigarren garaipena lortuta, ligako lortzeko bidea zabalik ikusi dute.

Kirolgi-OBB sofbol taldeak 2012ko oho-rezko mailako Espainiako liga nazionalan bi jardunaldi jokatu ditu. Madrilgo Dridma taldearen aurka izan ziren Mendibeltzen lehen bi partidak eta Viladecansen, Bartzelonan hurrengo biak.

Oriotarrek ez zuten liga nahi bezala hasi, bi partidetatik bakarra irabazi baitzuten. Orioko Bate Bizkorrak taldekoen jokoa ona izan zen, baina Madrilgo Drid-

ma izan zen nagusi lehen partidaren amaieran 1-4.

Bigarrenean, talde madrildarra gogor hasi zen arren, talde horiak hortzakestu eta markagailuari buelta eman zion. Nahiz eta Driedma 0 eta 2 aurreratu zen markagailuan, Orioko taldearen ahaleginak partida 4 eta 3 irabaztera eraman zituen. Aipatzekoa izan zen Kirolgi-OBBkoentzat ligako lehen jardunaldian,

Ane Barandiaran eta Rosa Blanes jaurtitzailleek, eta baita Maialen Zubiak egingindako lana.

## Bartzelonatik pozik

Bigarren jardunaldian liga nazionalako gaur egungo txapeladuna izan zuten aurrez aurre: Bartzelonako Viladecans taldea. Aurkariek errespetu handia eman arren, bi partidetatik bat irabazita pozik itzuli ziren etxera oriotarrak. Lehen partidari, aurkari jaurtitzaille amerikar indartsuaren eskutik etorri zen OBBkoen porrota, izan ere, 5 eta 2 galdu zuten. Defentsan bi taldeetako jokalaria aritu ziren fin eta bereziki ondo aritu zen OBBko Ane Barandiaran.

Viladecansen jokatutako bigarren partidari, ordean, OBBkoak nagusitu ziren etxeko taldearen aurrean 3 eta 13koa izan zen emaitza. Orioko taldeak hasieratik erakutsi zuen pilota bateaz jotzeko gaitasuna eta indarra. Kataluniarrek hasieran karrera bat egin arren, Kirolgi-OBBk erraz eman zion buelta horri. Maialen Zubia donostiarra, Orioko taldeko gazteena, jokalaria garrantzitsua izan zen taldearentzat bigarren partidari, berak eta Rosa Blanes jaurtitzaille valentziarrak lan polita egin zuten.

Ligako bigarren garaipenak liga nazionala irabaztea pentsatzen hasteko arrazoiak eman dizkie Kirolgi OBBko jokalaria eta entrenatzaileei.

Hurrengo ingandean, apirilaren 15ean, derbia izango da Orioko Mendibeltz zelaian, goizeko 11:00etatik aurrera, Donostiako Atletico S. Sebastianen aurka.



Ainara Larraza oriotarra lehen jardunaldian, Mendibeltzen. KIROLGHOBB

## LABUR

### Mendi lasterketa Zinca eta Conde irabazle

Giro ederrean egin zen, joan den apirilaren 1ean, Orioko 2. Mendi Lasterketa. 350 lagunek eman zuten izena eta helmugara, berriz, 291 korrikalari iritsi ziren. Lehenak bi gasteiztar izan ziren; gizonetzkoetan Ionut Zinca eta emakumezkoetan Ana Conde. Oriotarren artean, berriz, Sonia Alonso eta Aitor Rubio izan ziren lehenak helmugan.

### Saskibaloia Infantil neskak finalerdietara

Une gozoak ari da bizitzen nesken saskibaloia Orion. Horren adibide dira Ainhoa Fernandezek entrenatzen dituen infantil neskak. Datorren asteburuan, apirilaren 21ean, beren kategoriako Gipuzkoako txapelketako finalerdia jokatuko du talde oriotarrak. Bide beretik doa kadete nesken taldea ere, datorren denboraldian mailaz igotzeko txartela lortu zuten martxoaren 23an eta, apirilaren 21ean, Iraurgi talde azpeitiarraren aurka irabazten badute, beren kategoriako Gipuzkoako txapelketako finala jokatuko dute.

### Arrauna De Anta irabazle Banyolesen

Katalunian, Banyolesko lakuan, 46 klubetako 230 arraunarik Espainiako selekzioan sartzeko probak jokatu zituzten. Espainiako Arraun Federazioko teknikariek kirolarien errendimendua baloratu zuten munduko probetarako egokienak aukeratu ahal izateko. Orio Arraun Elkarteko Edorta de Anta skiff egokituaren lehena izan zen Remeros del Eo taldeko Juan Pablo Barciaren aurretik. 5 minutu, 12 segundo eta 70 ehuneneko behar izan zituen De Antak eta ia hiru segundo gehiago bigarrenak.





KARKARA

# “Kontsulta eta lanaren oinarria herrian edukitzea da nire nahia”

## Eder Etxeberria

Kirol medikua

11 urte zituela hasi zen arraunean. 16 urterekin hasi zen lan egiten duen mundua ezagutzen. Aitak sortutako jakin-minak bultzatuta Leioan, Donostian, Iruñean eta Bartzelonan ikasi ondoren, 8 urte daramatza kirol mediku bezala lanean.

### IKER GURRUTXAGA

#### Izen handiko taldeetan egin duzu lan.

Nire bikotea, Joxean Aizperro, Urdai-bain zela hasi nintzen kirol esparruan, hark mediku bat behar zuelako. Esperientziarik gabea nintzen, baina ederra

izan zen eta asko ikasi nuen.

2005-06 urteetan Gipuzkoa Basketen aritu nintzen, LEB eta ACBn. Lan intentsua da, 24 orduz haien zerbitzura zaude eta izen handiko jokalariek tratatu behar dituzu. Han nintzela gizonezkoen

Espainiako saskibalo selekzioako medikuak, Victor Lainezek, hura utzi eta espezialitatea egitera bultzatu ninduen. Goizez traumatologiako larrialdi zerbitzuan egiten nuen lan eta arratsalde Joventut, Bartzelona eta halakoetan egiten nituen praktikak, besteak beste.

Handik bueltatu, lehen haurra izan, eta Realarekin egin nituen praktikak, igoera urtean hain justu. Talde jatorra zen eta asko ikasi nuen. Gerora, Portugalera eta Tiranen ere aritu naiz.

Oriok deitu zidanean, sekulako poza sentitu nuen. Etxean egotea bezalakorik ez dago. Horrez gain, 16 urtez azpiko nesken Espainiako saskibalo selekzioarekin ere izan naiz txapelketa batean.

#### Adin horietakoekin, nola egiten da lan?

Historia kliniko bat egiten diegu. Izandako gaixotasunak eta lesioak, duten elikadura... garrantzitsua da gure lana adin hauetan. Ariketa bereziak agindu, plantillak egitera bidali...

Gero fisioterapeutaren, prestatzaile fisikoren, entrenatzailearen eta nire artean, bakoitzarekin egin behar den lanaren grafiko bat egiten dugu, arazorik edo lesiorik izan ez dezaten eta beren potentzial fisiko eta taktikoa %100ean garatu dadin.

Adin txikoak izanda, lana oso kontuz egin behar da. Ez diegu uzten telebista denbora luzez ikusten edo mugikorrek egunean 1-2 ordu bakarrik erabil ditzaketete. Elikadura asko zaintzen dugu, gutxiegi, gehiegi, edo gaizki jaten dutenen gainean egonda. Luzaketek duten garrantzia ere egunero gogorarazten diegu. Haiekin hitz egitea eta ikasketetako motibatzea ere talde tekniko-mediko osoaren lan bezala hartzen dugu.

#### Iritzi publikoak asko zigortzen zaituzte.

Batzuetan haserre puntu bat sortzen zait jendeak nola hitz egiten duen entzunda, baina nik oso argi ditut gauzak, eta nire kirolariek ere bai. Espero dut gero eta gehiago izango garela garbi jokatzeko kirol medikuak eta pixkanaka tranposoak desagertaraziko ditugula.

#### Herrian kontsulta jartzerik pentsatu al duzu?

Nire ilusioa hori da, kontsulta eta lanaren oinarria herrian edukitzea; kanpoan kongresuak, kurtsoak eta taldeak ere izan arren. Benetan pentsatzen dut, pertsona arruntek, kirola egoki egiten badute, bizi-esperantza eta kalitatea gogortzen dela, botika gutxiago erabili behar izaten dela eta onura psikologikak ere garbiak direla. Kirolariei, berriz, errendimendua %100 izaten laguntze diegu eta kirolak eragin ditzakeen lesio edo gaixotasunak gutxiesten. Espero dut 2-3 urte barruan nire kirol zerbitzu propioa edukitzea.

# Aiako berri



KARKARA

## “Borda eta lurra ikusita, mahastia jartzeko erabakia hartu nuen”

### Nerea Gaztañazpi

Mahastizalea

Lurra erosi eta mahastia jarri du Nereak Telleria baserri ondoan. Poliki-poliki ari da nahi duen moduan jartzen eta, aurten, landatutako erdiak emango dio aurreneko uzta.

#### PAT COWIE

##### Zerk ekarri zaitu Aiara?

Santioko bikotekideak eta biok ez geunden gustura Zarauzko bizimoduarekin... Lan finakoak utzi eta bi urte pasa genituen Europan barrena bidaiatzen eta ideiak sendotzen. Aitak mahasti txiki bat zuen eta horrek piztu zidan argia. Borda honek lurra eta pinudia zuela ikusita, segituan hartu genuen erabakia.

##### Hastea zaila izan zen?

Inbertsio handia da, eta egin dugun moduagatik, lan handia egin ondoren, 4-5 urtera jasotzen da uzta, baina bizimodu

politua da. Batzuetan gogorra da, behar adina indarririk beti ez dut eta, baina senarrak, lagunak eta familiek lagundu didate. Emakume gutxi gara oraindik, baina poz handia ematen dit ikustea gero eta emakume gehiago gaudela halakoe-tan eta baserrietan enpresaren jabetza eta ardura hartzen.

##### Mahastiak zeharo kontrolatuta daude?

Bai, bestela zaila da mahatsa saltzea. Kostatu zitzaidan hastea, legea eta arauak aldatzen ari zirelako, baina Diputazioako monitore batek ondo aholkatu zidan. Gaur egun zenbat mahats dauden

Europatik kontrolatzen da, eta baimena izateko dirua jarri behar duzu. 2005ean erosi genuen, 2006an lurra mugitu, 2007an erdia landatu eta 2008an beste erdia. Nahikoa lan! Baina, begira, aurten izango dut aurreneko uzta.

##### Zer izan da zailena?

Egunero etorrita, eta hain lur zati handia ikusita, jan egiten minduen. Ez begiratu gora, gaur errenka hau egin, eta bihar hurrengo, esaten nion nire buruari. Bestalde, dena dirua da, baina ez gara hasi dirutzarekin. Bi urte eman ditut makinak bi hilabeteetan sartzen di-

**“Hiru hektarea ditugu landuta, eta landare bakoitza ezagutzen dut, izenez eta adinez”**

“Mahatsaren kontua dirua da, besterik ez, eta gu oso txikiak gara mundu honetan”

tuen landareak aldatzen. Beti gabiltza justu, eta ume bat ere badugu. Baina lanak bete egiten nau. Ditugun lau hektareatik hiru ditugu landatuta eta landare bakoitza ezagutzen dut, izenez eta adinez.

##### Mahatsak saltzea ziurtatuta duzu?

Hala uste dut. Txakolinaren ekoizpenean eskaera handia dago eta jende berri dezente. Eta badirudi ardo-egileek tresneria eta azpiegiturak sendotuko dituztela gehiago ekoizteko. Jakina, kalitateak, azukre mailak, gaitzek... zerikusia dute eta nik, nire aldetik, horretaz arduratu beharko dut. Baina ez badut ondo bideratzen, hainbeste lan egin ondoren, jai izango dugu!

Egia da, nire ustez, oso ardo garestia dela, baina ardo *berri* guztiekin gertatzen den bezala, erregulatuko eta hobetuko da.

##### Helburua?

Behin diru pixka bat ematen digunean, gustatuko litzaiguke borda txukuntzea eta hemen bizitzen jartzea. Ondo moldatzen gara elkarrekin, bakoitza bere lanera joaten denean baino hobeto. Gainera, bertan dugu eskola txikia eta egoia, ume gehiegirik gabekoa. Zarautzen ez gaude gustura, dena da itxura, autoa, turismoa... Ez dugu behar hiriko ezer. Bigarren ametsa lur gehiago lortu eta gure txakolina egitea da. Baina mahatsaren kontua dirua da, inbertsio kontua, besterik ez. Gu txikiak gara mundu honetan, baina, zeinek daki, biharko egunean, gure txakolina egingo ez dugun hementxe bertan!

# Landare Berezien Azoka egingo dute 10. urtez Iturrarango lorategian

Apirilaren 28an eta 29an 10:00etatik 18:00etara bitartean jarriko dira ikusgai landareak. Lorategi botanikoan ez ezik Aiako plazan ere izango dira landareekin lotutako mahaiaik.

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten hain margarren aldia izango da, Landare Berezien Azoka izango da apirilaren 28an eta 29an, Iturrarango Lorategi Botanikoan, 10:00etatik 18:00etara bitartean.

Pagoetako Parke Naturalaren helburuetako bat landaretzaren kontserbazioa eta aniztasuna sustatzea da eta Iturrarango Lorategi Botaniko arduradunen esanetan, *klima egokiari esker mundu guztiko landareak alda daitezke hemen, leku hotzetakoak zein epeletakoak. Helburu nagusia ahalik eta bildumarik handiena osatzea da; orain, bost kontinenteetako 5.000 landare mota daude.*

Sektoreko aditu, profesional eta landarezaleei eta, oro har, publikoari landare aniztasuna ezagutarazteko jarri zuten abian azoka. Parte hartzaileak beren interes edo pasioan sakonduz, landare bildumak egiten espezializatu diren profesionalak dira. *Euren berezitasunengatik edo ezezagunak direlako ohiko mintegietatik kanpo geratzen diren espezieak mantendu eta ikusgai jartzen dituzte.*

Mintegizale kopurua handitzen joan da urtetik urtera eta aurten 48k hartuko dute parte. Urtero izaten dira berrikuntzak eta beti saiatzeko dira ahalik eta landare mota gehien erakusten. Aurtengo aipagarrienak honakoak dira: palmondo eta landare exotikoak dituen El Oasis del Cantábrico; Aiako Lur Berry basafruitu eta zuhaixka jangarri ekologikoekin; Herbeheretako Rein en Mark Bulk; kamelia bilduma ederra duen Galiziako Viveiros Moreira; eta Frantziako Pepiniere Vert-Avril Opuntia landatarrak, *epiphyllum* eta *dalhiak* ekarriko dituen.

Bisitariak ere asko izaten dira. *Denbora luzez amestutako landarea bilatzeko ilusioz, edo ustekabekoren bat aurkitzeko irrikaz etortzen dira. Izan ere, erabilpenik gabe geratu direlako, zabaltze konplexua edota nekeza dutelako, edo hautaketa oso lokala edo berria dutelako, lortzeko landare zailak izaten dira batzuk, esan digu Irune Aldaik.*

## Aparkalekuak eta sarrerak

Azokara joan nahi dutenentzat bi aparkaleku egokituko dituzte; bat Aian eta



48 mintegitako ordezkariak askotariko loreak ekarriko dituzte. ARRETA PAGOETA

bestea Orion, Oribazarren. Handik doako autobusak ibiliko dira azokara joan-etorrian. Trenez gerturatuz gero ere doako autobus zerbitzua egongo da Zarauzko Euskotren geltokitik. Sarrerak aparkalekuetan salduko dituzte 3 eurotan; 12 urtetik beherako haurrek doan izango dute etabi egunetarako bonoa ere erosi ahal izango da 4 eurotan. Azokan jan eta edateko postuak ere egongo dira.

## Denbora luzez amestutako landarea bilatzeko ilusioz, edo ustekabekoren bat aurkitzeko irrikaz etortzen dira bisitariak azokara

### Ekintza osagarriak

Landare Berezien Azokaren 10. urterena denez, Aiako herriaren eta Pagoetako parke naturalaren arteko lotura sendotzen jarraitzeko, Aian hainbat ekintza antolatu dituzte bi egun horietarako azokaren ordutegi berean.

Plazan, jasangarritasunarekiko sentibilizazio eta dinamizazioari eta ingurumenarekiko errespetuari buruzko Ekogunea egongo da; baita auto eta moto elektrikoak ere.

Landareekin lotutako hainbat postu ere jarriko dituzte honako gaiekin: balikoietan, terrazetan... baratzegintza lantzeko zutikako moduluak; landare usaindunak eta sukaldarakoak; sasoiko landareak; ongari, konpostatze eta hazi ekologikoak; zizare hazkuntza eta ongari organikoak; sendabelarrak; *aloe vera* kremak; lore prentsatuak eta zeramika; lore lehorrak; zekalez eta lorez betetako poltsa beroak; eztia eta deribatuak. Bartzuetan tailerrak ere izango dira: landare usaindunak eta sukaldarakoak loreontzietan landatzeko; zizare konpostatzeari buruzkoa; sendabelarren nahasketa irakasteko; eta kandelak egiteko.

Ikastolen Elkarteko Kilometroetako arropa ere jarriko dute salgai eta globoflexia erakustaldia eta, igandean, gaztelu puzgarriak ere jarriko dituzte.



## Quilla, que bonita ez Zevilla

**Q**uilla, que me voy pa Zevilla mareatu egin nituen inguruko guztiak. Andaluziako desberdin-berdintasunak ezagutzeko asmoz, hainbat literatura medio eta min kolateral batzuekin –taldea hiru kidek osatu baikeen–, Aste Santuko prozesioko entsaioa Bilboko aireportuan hasi baitzen. Erromes talde bat topatu txurigorritz jantzita Ingalaterra aldera... Jainkoari esker.

Ordubetea Sevilla hirian, Esperanza Makarena elizaren ondoan.

Laranjak lurrean –janezinak, mermelada egitekoak–, azahar usaina, *Hual al Khabir* –gero Guadalquivir– ibaiaren ertzean.

Han eta hemen arraunlariak, eta hara

non eta larogeiko hamarkadan, arraunlari olinpikoa ezagutzeko aukera. Juan Martinez Pozas, Espainiako plazan, Gipuzkoako armari aurrean eserita, Aia letra handiz jartzen duen lekuan. Elkarritzeta goxoa berarekin eta gomendio onak jaso.

Edertasuna goraiatzeko Reales Alcazares aipatu behar, momentu batean beste mende batean murgildurik...

Flamenko garaia Trianan hasi bai-

**Entresaka, testua oso luzea bada kendu eta oso motza bada entreskaren goikaldeko zutabea libre utzi**

tzen, Diego *El Cigalarekin lágrimas negras* guretzat bereziki eskainita.. bere artea jakin arazteko gogo minez.

*Tablao* batera ere joan ginen, han *baillor* hemen dantzariaren hanken trebezia liluratuta utzi ziguten.

*Olé, olé*, behin eta berriro errepetikatzen, *kantaoren* koplak azalak oilo ipurdia jartzen.

Tapak, pintxoak baina handiagoak, oreganoa nonahi, eskerrak *Almax-ak* ere gurekin bidaiatu zuela.

Bidaia honek sentimendu goxoa utzi digu, eta gehiago ezagutzeko jakinmina.

Eta joan aurretik bezala, bueltan ondoko guztiak mareatu egin nituen, hori bai, belarritakoak, kastañuelak eta mantala lunarez jositako jantzita, noski.

*Quilla, que bonita ez Zevilla.*



## Txokoak eta jendea

Fatima eta Furia

Fatima Larrañaga Romero aiarra zaldiko trebea dela frogatzen ari da. Martxoaren 17an Gipuzkoako azpitxapelduna izan zen 42 kilometroko ibilbidean junior mailan *Furia* zaldiarekin, eta martxoan ere Espainiako Txapelketarako sailkapena lortu zuen *Foces* beste zaldiarekin uztailan egingo den 120 kilometroko lasterketarako.



## 11. Kontzejutik Itxaspera

**A**lderantziz, Itxaspetik Kontzejura, esan behar genuke agian; izan ere, handik diru sarrerak jasotzeko eraiki zuen Itxaspe baserria Orioko kontzejuak –Udalak– eta ezinbestekoa zen Kontzejuaren gastuak finantzatzeko. 1670ean eraiki zuten San Martin bailaran. Orion hiru baserri baino ez zirenean, Itxaspe zen horietako bat eta, beraz, herriko baserri zaharrenetakoa da.

Itxaspek kalte ugari jaso ditu urteetan barrena itsaso aldetik sartzen diren denboraleen ondorioz. Ikusi baino ez dago nola 1711n goitik behera berritu behar izan zuten zuen egoera kaxkarrangatik eta 1713an, Kontzejuak errentan hartzeko aukera eman zuenean, oraindik lanak bukatu gabe zeuden.

Baserria nekazaritarako inguru desegokian egon arren, lur emankorrak zituena –artoa eta garia oso ugariak zirena–, baita ganaduentzako larreak ere. Sagardo egiteko dolarea ere bazuen.

Etxaldeetako maizterrek ongarriak ateratzeko, karobiak egin behar zituzten, bai beren lurretarako baita beste herritarrentzat ere. Bestalde, Kontzejuak, urtero, zuhaitz kopuru jakin bat landa-

tzeko agintzen zien, birlandaketa bultzatu eta basoen iraupena ziurtatzeko.

Kontzejua zen Itxasperen jabe, baina 1814an saldu zuen eta baserria esku partikularretara pasa zen eta, ondoren, 1821ean bi etxebizitzatan banatu zuten.

1972. urtean baserriak bi zati izaten jarraitzen zuen eta gero EAJk hegaltza erosi zuen afiliatuen bilerak eta egonaldiak egiteko.

1980. urtean goitik-behera berritu zuten eta baserriaren zurezko egitura guztia kendu. Gaur egun, etxebizitza bakarreko eraikina da Itxaspe eta, baserriko lan gehienak utzita, nekazaritza-turismora bideratu dute eraikin berri bat.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN

**BERME Aholkularitza S.L.**  
Zerga eta lege aholkularitza

• Aholkularitza zibila  
 • Aholkularitza fiskala  
 • Aholkularitza erretzen  
 • Lan mugatuaren aholkularitza  
 • Zerga zuzenaren aholkularitza  
 • Aholkularitza ekonomikoaren aholkularitza

1994. martxoaren 16an enpleatuta  
 41011 0100 0100

Berme (Bizkaia)  
 48921 2200 0100  
 943 894 024

**b**

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAK

143 81 05 37 / 943 83 27 47

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskongia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



“ONCEEn  
jardutea lan  
egitea baino  
gehiago da”

---

**Elena Arrillaga eta Nieves Marquez**

Diruzaina eta zuzendaritzako idazkaria





Zarautzen jaio ziren biak eta elkarrekin joaten ziren eskolara. Koadrila bereko lagunak dira, eta biak ala biak Aiara ezkondu ziren. Hori guztia gutxi balitz, **ONCEko langileak izan dira azken ia 30 urtean.** Elkarren ondoan egindako bideari buruz hitz egin digute bi emakume berritsuek.

**TESTUA: PAT COWIE**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**

Justu ONCEk Donostian duen bulegoan langileen kopurua murrizten hasi direnean gelditu gara Elena eta Nievesekin, bertan egiten duten lanari buruz hitz egiteko. Bitxia da nola aritu diren bi emakumeak bata egindako pausoak besteak ere egiten, ez imitatzeagatik, baizik eta bizitzak horrela eraman dituelako biak batera, beti bata bestearen ondoan...

**Beti ibili al zarete batera?**

Nieves: Gauza askotan elkarrekin aritu gara. Koadrilako lagunak ginen eta, Aiako koadrila bat ezagutu ondoren, Juan Carlosekin ezkondu nintzen ni eta Elena Juan Luisekin.

Elena: Biok Aiara ezkondu ginen, urte askotan joan gara elkarrekin lanera, eta

orain biok pasatzen ditugu Zarautzen lanegunak eta, asteburuetan, Aiara etortzen gara.

**Zerk bultzatu zintuzten ONCEn lan egitera?**

N: Batetik, nire arrebak ikusmeneko arazoekin jaio zelako, braile ikasi nuen eta hurbildik bizi nituen itsuen esperientziak. Bestetik, administrazioa ikasten ari nintzen ONCEn lanpostu batzuk eskaini zirenean, eta 1982an hartu ninduten. Garai hartan, oso jende gutxik egiten zuen lan ONCEn eta zozketa askoz ere mugatua zen, baina 1984an zabaldu zuten estatu osora eta sariak handitu zituzten eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Orduan sartu zen langile berri mordoak. Elenari aipatu nion eta, azterketa gaindituta, 1984an hasi zen.

**Langile asko zarete Donostian?**

E: Gipuzkoan 280 bat saltzaile dira eta Donostiako bulegoan 44 bat langile, baina dagoeneko hasi dira administrazioko jende asko kentzen, teknologiak ordezkatu baikaitu orain dela gutxi arte beharrezkoak ginen langile asko. Irakasleak, psikologoa, telefonista, langile soziala... ditugu, ni diruzaintzan aritu naiz beti, eta Nieves zuzendaritzako idazkaria da. Hori bai, itsuek bete ditzaketen lanpostuak berek betetzen dituzte, nagusia eta kargu handikoak itsuak dira beti, eta langilegoaren laurden bat edo halakoak izango dira denera.

**Zer prestakuntza eman zizueten itsuekin lan egiteko?**

E: Braille ikasi behar genuen; puntuak bistaz irakurtzen ditugu, berek, berriz, behatz puntekin. Oso zaila da bista duenarentzat behatzekin ikastea, eta itsuari

er, umetatik ikasten ez badu, nahiko zaila egiten zaio. Brailez idazten ere ikasi genuen, garai hartan markak egiteko pauta bat erabiliz. Gaur egun, idazteko makina bezalako Perkins izena duen tresna batekin egiten da. Gauzak asko aldatu dira. Lehen, saldu gabeko kupoiak bulegora ekarri behar ziren kontrolatzeko eta jasotako dirua kontatzeko, gaueko zozketa baino lehen, larunbatak barne. Txandaka egiten genuen lan hori, eta gaueko hamarretan etxera abiatu. Gaur egun, berriz, jendea sobera dago administrazioan.

N: Eta kupoiak ere eskuz egiten ziren. Batek eskatzen bazuen 17rekin bukatzen zen zenbaki bat, prestatu egin behar zen. Gaur paketeak etortzen dira Madriletik, saltzaileak eskatzen dituen zenbakiekin. Nahi badu 100 igualak eta 20 diferente, hala egiten da. Gainera, daukan makinarekin zenbaki bat propio sor dezake. Eta gaur egun, jende askoz gehiagok jotzen du hasieran baino.

#### **Garai batean, harremana ere bestelakoa izango zen, ezta?**

E: Bai, saltzaileekin genuena askoz ere estuagoa izaten zen, genero elkartzen baikin. Orain, ia ez gara ikusten: telefonoz, kupoiko makinaz, banketxez egiten da dena eta hurrengo egunean jasotzen dut informatika bidez. Baina ikastaroetan izena ematera eta ordaintzera etortzen dira.

N: Bai, antolatutako ekintzetara etortzen direnean egoten gara elkarrekin. Sabeleko dantza, aerobik, pilates, tiroa... klase eta ikastaro ugari izaten dira eta, halakoetan, guk ere parte har dezakegu eta hartzen dugu. ONCEk duen ezaugarri bat da: ez dugu enpresa bat bezala bakarrik bizitzen. Ikastaroetan, txangoetan, ONCEren Egunean... gehienok hartzen dugu parte, nahi dugulako eta enpresak animatuta. Burutik ez zaigu pasatzen ez joatea. Ikusteko zailtasunak dituztenek nahi dute gurekin ibili eta guk haiekin; are gehiago, gaur egun tratu gutxiago izaten dugulako.

#### **Konplikaturik al da ikusmena duena eta itsua eraikuntza berean izatea?**

E: Ikusten duten langile batzuei kostatzen zaie itsuen ohiturak kontuan hartzea. Nik, adibidez, ohitura nuen atea zeharo ez ixteko, okerrena itsuarentzat, berak zeharo itxita edo zeharo zabaldua aurkitu behar baititu. Orain ez zait burutik pasa ere egiten, baina hasieran bai. Lehen, askotan, gela batean sartzen nintzen, eta argia pizteko momentuan susto bat hartzen nuen bertan norbait zegoela ikusita. Orain, eraikuntza inteligen-tea dugu eta mugimendua antzematen denean argiak pizten dira. Baina bulegoak denok ezagutzen ditugun modukoak

“Gipuzkoan 280 bat saltzaile dira eta bulegoan 44 bat langile, baina administrazioko jendea kentzen ari dira, teknologiak ordezkatu bait gaitu orain arte beharrezkoak ginen langile asko”

“Lehen, saldu gabeko kupoiak eta jasotako dirua kontatu behar izaten ziren gaueko zozketa baino lehen. Orain, telefonoz, kupoiko makinaz, banketxez... egiten da dena, eta bulegoan jaso informatika bidez”

“Ez dugu enpresa bezala bakarrik bizitzen: ikastaroetan, txangoetan, ONCEren Egunean... hartzen dugu parte; nahi dugulako eta enpresak animatuta. Burutik ere ez zaigu pasatzen ez joatea”

“Jendeak oso erraz jotzen du begiak operatzera, baina niri beldur handia ematen dit, gaizki atera direnak badaude eta oso gaizki pasatzen dute. Itsu gelditzen bazara gaitz batengatik, tira, baina zuk estetikaz erabakitzezagatik...”

“Ordenagailu mota asko daude, telebistarako zerbitzu berezia dago, filmak entzun daitezke ahots batek kontatzen dizula zer pasatzen ari den eta liburutegi ikaragarria da; azkenean, guztia dago grabatuta”

“Entzuten badugu ONCEz gaizki esaka ari direla, haserretu egiten gara. Egia da gehiago mekanizatzen ari garela eta sentipena gutxitzen ari dela; lan normal bat da, baina baita ere inplikaturik zauden zer bait”

“Hasieran, erosleak errukitzen zelako erosten zuen kupoia, itsuari, gizarajoari, laguntzeko, eta askotan saltzaileak ere pena sentiarazi nahi zuen. Gaur egun jendeak ez du erosten zailtasunak dituenari laguntzeko, baizik eta premio handia irabazteko”

dira.

N: Erne egoten gara bulegoan zein kalean. Esaterako, enpresa batek zer bait ekarriko du kafetegirako eta eskaileren ahoaren erdian lurrean utzi. Edo kalean obra egiten ari dira eta zulo baten gainetik pasatzeko taula bat jartzen dute. Segituan etortzen zaigu saltzailearen egoera eta inguruan diren arriskuak. Gaizki pasatzen dut umeak ikusten ditudanean makilekin edo guraizeekin jolasten. Hainbeste kasu ezagutu ditugu eta. E: Bai, eta jendeak oso erraz jotzen du begiak operatzera, baina niri beldur handia ematen dit, gaizki atera direnak badaude eta oso gaizki pasatzen dute. Itsu gelditzen bazara gaitz batengatik, tira, baina zuk estetikaz erabakitzezagatik...

#### **Teknologia berriak aipatu dituzue.**

N: Bai, informatika oso garatuta dago. Ordenagailu mota asko daude ikusmen arazoak dituztenentzat, bakoitzaren beharretara prestatuta: pantaila handiagoa, braile linea, nabigatzeko link bereziak, sartzen dena eta irakurtzen dena entzuten da... Pentsa, hasieran, nork bere pasahitz sekretua sartzen zuenean teklatuan, ozenki zabaltzen zen pasa hitza! Telebistarako zerbitzu berezia dago, filmak entzun daitezke ahots batek kontatzen dizulako zer pasatzen ari den, antzerkian ere obra batzuk egiten dira eta belarrira esaten dizute zer pasatzen ari den.

E: Eta gaur egun liburutegia ikaragarria da: azkenean guztia dago grabatuta, argitaletxeek hitzarmena baitute ONCErekin, eta ia guk liburua topatu baino lehen dute eskura grabazioa. Internet bidez deskargatzen dute nahi dutena. Lehen, pentsa, brailez idatzitako liburuak oso lodiak ziren, puntuak ezin baitziren zapaldu. Teknologiagatik zahartu den guztia Kubara bidaltzen da, jakinda ondo aprobetxatuko dutela.

#### **Esperientzia gabekook, askotan, ez dakigu nola jokatu itsu batekin topo egiten dugunean.**

N: Guk ere izan ditugu momentu deserosoak. Hasi berria nintzenean, Madrilerajoan nintzen nagusiarekin eta *Komunera lagunduko didazu?* esan zidanean, ez nekien zer egin behar nuen, ateraino eraman, barruraino sartu... baina galdetu behar dela ikasten duzu eta komunikazioaren bidez aurkitzen duzu irtenbidea. Itsu batek laguntza eskatzen dizunean ez diozu besotik heldu behar baizik eta aurretik joan. Berak helduko dizu besotik eta zure mugimenduen bidez antzemango du nora zoazen, bera mugitzen hasi baino lehen.

E: Ikusmena baduten langileekin eta, gaur egun, eskolako umeekin ere,



ekintzak antolatzen dira hobeto ulertzeko itsuek izaten dituzten orientatzeko zailtasunak. Behin, begiak tapatuta, eraikuntzatik zehar eraman gintuzten, gauzak jarri ziguten eskuan, telefonoa jotzen zuen eta ez genekien monitorea gurekin hitz egiten ari zen edo beste norbaitekin... Zeharo galduta sentitzen ginen. Antzeko zerbait egin dezakezu ONCEren Egunean sentiduen tunelean. Zenbat lan egiten duen imaginazioak ikusmena ondo ez dabilenean. Oso ariketa interesantea da. **Zertan ematen duzue eguna?**

E: Diruzaintza hutsean: zenbakiak, salmentak, sariak, ordainketak... Saltzaileak deitzen didate oraindik ez badute zerbait ulertzen, diru-laguntzak jasotzen dutenek hemen kobratzen dute eta, jakina, saria egokitu zaien gutxi batzuk etortzen dira jasotzera. Etortzen dena da nola egin ez dakielako edo besteek jakin ez dezaten nahi duena! Behin saria tokatu zen Zarautzen eta batzuk hona etorri ziren, eta norekin egingo topo? Bada, gurekin! Beste askok publikoki esan zuten eta gu, bitartean, isil-isilik! Informazioa gorde behar da, jakina.

N: Nire eguna zeharo diferentea da, zuzendariarekin bainago, eta gai guztiak hiru sailetan ditut: administrazio hutsa, saltzaileak eta kupoia, eta afiliatuentzako zerbitsuak. Inoiz ez dakit zerekin ari tuko naizen. Esaterako, saltzaile batek beste leku batean jarri nahi badu, ez dakit zer izorratu dela gimnasioan, itsu bati ez diotela utzi sartzen jatetxe batean txakurrarekin, estazioan jarri duten makina batean zenbakiak oso txikiak direla... gestio lana egiten dut, irtenbide bat bilatu; jende askorekin hitz egin, erakundearekin gauzak adostu, kanpainak antolatu... askotariko lana. Lehen zeharo itsuak ziren asko zeuden, izandako nagusiak barne, eta den-dena irakurtzen nien, ahotsa urratu arte; baina gaur egun ikusmen murriztua izaten dute gehienek, eta errazago moldatzen dira. Egiten dudana gehiago gustatzen zait orain, lehen baino. Hala ere, niretzat gizarte zerbitsuetan dute lanik interesgarriena: bista galtzen ari denarekin izaten dute aurreneko harremana eta, bizitzen ari dena hobeto eramateko, nola jokatu irakasten diote.

#### **Bokazioa al da zuena?**

N: Neurri batean, ahizpagatik sartu nintzen hemen, baina lan bila nenbilen eta hori ONCEn bazen, hobeto. Gero, bai, uste dut bokazio bihurtu dela.

E: Ez duzu ikusten enpresa bezala; sentitzen duzu bizitzeko era bat dela. Entzuten badugu ONCEz gaizki esaka ari direla, haserretu egiten gara. Egia da gehiago mekanizatzen ari garela eta sentipen

hori gutxitzen ari dela; lan normal bat da, baina baita ere inplikaturata zauden zerbait.

N: Gerra zibilean jende askok galdu zuen ikasmena eta ONCE sortu zen haiei laguntza emateko. Gaur egun, zailtasunak dituzten saltzaileak ditugu, ez bakarrik itsuak; ez afiliatuak bezala, baina langile bezala, bai; eta zerbitsuak erabil ditzakete, baina kargu nagusiak bete ez, guri gertatzen zaigun moduan. Eta ondo iruditzen zait, bestela lanerako lekuak jango genizkieke. Horrela, ikusmena galdu dutenek hartzen dituzte erabakiak, aginduak ematen dituzte, aukerak aztertzen dituzte...

#### **Sariduna izan al zara?**

E: Sei eurokoa, bai! Ez dugu saria irabazi duen langilerik bat ere ezagutzen. Baina niri tokatuz gero, beti esan dut lanean jarraituko nukeela. Gustukoa dut. Ikusita daukat dirutza jaso duenak arazo gehiago izaten dituela konpondu dituenak baino. Nire bizitzarekin jarraituko nuke, luxu gehiagorekin, jakina, eta soldatarik gabe hilabete bat jai hartuko nuke noizean behin.

N: Ekintzetan lagunduko nuke, baina eguneroko ordutegia lotuta egoten jarraitzea, ez. Jakina, hori sari handi bat tokatuz gero.

#### **Kexak entzuten dira: ONCE negozio hutsa dela, langilea gaizki tratatzen dela...**

N: Hasieran, erosleak errukitzen zelako erosten zion kupoia itsuari, gizarajoari, laguntzeko, eta askotan saltzaileak ere pena sentiarazi nahi zuten. 1984ko boomaren ondorioz, diru asko biltzen hasi zen eta gauza asko aldatu ziren: bulegoak handitu, azpiegitura eta instalazioak sendotu, talde ziklista sortu, telebistan azaldu... eta jende askok pentsatu zuten ONCE diru pila mugitzen zen negozioa bihurtu zela eta saltzaileak esplotatzen zituela. Oker zeuden. Beste inork ematen ez dituen eta beharrezkoak diren zerbitsuak eskaintzen ditu eta kupoia saltzaileak duina den eta ondo konpentzatuta dagoen lana egiten du.

E: Lanean hasi baino lehen prestakuntza jasotzen du saltzaileak eta, nahiz eta batzuei duina ez iruditu, beste askorentzat bizitzaz jabetzeko bidea da eta harreman asko izaten ditu erosleekin. Egia da, krisia dela eta, askoz ere gutxiago saltzen ari dela orain, nahiko nabaria da, eta batzuk orain dela urte batzuk baino gutxiago irabazten ari dira. Baina gaur egun, gehienetan, jendeak ez du erosten zailtasunak dituen pertsonari laguntzeko, edota gaixoarekin errukitzen delako, baizik eta premio handia irabazteko!



# Haize berriak



lazako moila bazterretik ez da itsasoa ikusten. Ez da barra ikusten. Ez dira harkaitzak ikusten. Goazen Aros-tegiren tailerretik aurrera, pasa ikastola, futbolzelaia, pasa paseoa autopista azpitik ibai ertzean aurrera barra muturreraino.

Orain bai, itsasoa ikusten da. Hortxe daude harkaitza eta itsasoa. Marea goian denean elkarrekin biak. Lagunduta. Konpainian. Freskoan bero.

Marea behean denean denean baka-rrik biak. Urrunduta. Hotz. Hi hor eta ni hemen. Independentzia hori neurrigabe-ko aberastasun. Bakoitzak bere alde-tik gauza berriak ezagutzeko, probatze-ko aukera, baina elkarri leial beti.

Harkaitza lasai. Geldi. Serio. Zain. Interesante. Gogorarena eginez: "etorri-ko haiz berriz". Itsasoa mugituta. Harkaitzetik harkaitzera. Denekin solas eta jolas. Joan-etorrian: zer uste du horrek, bera dela kostako harkaitz bakarra hala?.

**Harkaitz eta Itsaso ginekologoarenetik irribarretsu irten dira. Oso irribarretsu. Datorren maiatzean jaioko da Haizea txikia. Maiatzean haize berriak datoz gurera. Haizea eta itsasoa bezain zaharra da Euskal Herriaren gatazka. Maiatzean etorri ziren eta etorriko dira haize berriak**

Harreman intermitente baina etengabe horrek oinarri sendoak ditu. Gauak eguzkia itzali eta mesanotzeko ilargitxoak piztu duenean besarkatu dute elkar.

Haizeak altzatak olatuek intentzioz astindu dute harkaitza. Elkar jo, laztandu, musukatu, besarkatu eta arnaska be-tean busti ondoren, loak hartu ditu. Gazian gozo.

Harkaitz eta Itsaso ginekologoarenetik irribarretsu irten dira. Oso irribarretsu. Datorren maiatzean jaioko da Haizea txikia.

Maiatzean haize berriak datoz gurera. Haizea eta itsasoa bezain zaharra da Euskal Herriaren gatazka. Maiatzean etorri ziren eta etorriko dira haize berriak.

**Goizeko**  
KAFETEGIA  
943 83 28 55  
Ara Lantxundi 33 benta - ORIO  
Autobus parada ondoan

**Gabon**  
TABERNA  
plater, karkak, aperitxoak  
Tfn: 943 83 06 09

ZABALIK!  
PROBATU  
EZAZU!  
PIZZERIA  
KALETA  
ARRANTZALE KALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

**RAMIRO**  
argazkiak  
www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com  
610 69 76 68  
943 83 10 48

faroko bakailaoa daukagu  
**ITSAS MENDI**  
gutzikiak  
Elmora Gaurri, 5 - Tel: 943 24 07 74 - Orio

**gizarte kutxa**

**ITZALA**  
karkak, jokatze, aperitxoak  
Tel: 943 83 12 50

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza  
euskal gudariak 35 - ORIO  
943 53 64 94 - 697 23 86 56  
[ Sandra Arrantzaile karkak ]  
libegamendia@gmail.com

# Bilatzen...

**B**ai librea eman didate artikulu hau idazteko. Ze zaila! Denbora eman dut horretan pentsatzen: gai serio bati buruz egiten badut? Buf, ez, ze ziur norbait zerbaitekin ofenditu daitekeela. Pelikula bati buruz? Ez, zeren iritzi artikulu bat baino gehiago, zine kritika baten forma hartuko du. Ba...nire buruaz idatziko dut eta kitto!

Azkenaldian, eta aspaldiko partez, nire burua gehiago zaintzen saiatzen ari naiz, automimatzen. Denok izaten ditugu horrelako faseak bizitzan: batzuetan, gertatzen zaigunari eta ingurukoari behar adina jaramonik egin gabe pasa ditzakegu urteak eta, besteetan, gaueko hontzak bezain atentu begiratzen dugu dena, ikasi egin nahi dugu ikusten dugun guztitik, ahal dugun gehiena xurgatu. Fase horretan nago orain ni berriro. Egia da unibertsitateko ikasketek eta lanak ez didatela nik nahi adina denbora librea uzten, baina dauzkadan tartetxoetan horretan ari naiz.

Madril bezalako hiri handi batean bizitzeak ere badu eragina horretan. Dena doa azkarago, jendeak pazientzia gutxiago du, aurpegi ilunagoak, aglomerazioak... Beharrezkoa da, noizean behin, distantzia pixka bat hartzea, dagoeneko daukagun erdi eromen hori gehiagora joan ez dadin.

Horretarako, niri Oriora etortzea oso ondo datorkit: *kit-kat* momentu baten antzera. Egia da joan nintzenetik herria asko aldatu dela: hondartza aldeak Marbella gogorarazten badit ere, ikastola ondoko kirol instalazioak gus-tuko ditut, baita eliza inguru berria ere. Baina, iritsi bezain laster, nik beste gauza bat usain-

tzen dut: erritmo pausatua. Eta, konturatzen naizenerako, *Ene maite Kattalin, Loretxoa* edota *Haika mutil* bezalako abestiak *tararea-tzen* hasten naiz konturatu ere egin gabe -agian, pixka bat *cursi* geratu da hau, baina egia da!-. Eta zerbeza bat eskuan badut eta maite ditudanak inguruan, ez dut beste ezer gehiago behar. Nola liteke hain gauza sinpleekin hain zoriontsu sentitzea? Bada, hori ere denborarekin ikasten da.

Bada beste gauza bat herrira etortzen naizenean bakoitzean atentzioa ematen didana: gero eta ume eta txakur gehiago dago hemen! Hurrengo bisitarako haur-kotxeentzako erraila pintatuta baietz!

Nire introspektzioarekin jarraituz, orain dela gutxi, kasualitatez, blog batean irakurri nituen indiar espiritualtasunaren lau legeak; ez nekien existitzen zirenik ere. Ez dut nire burua mistikotzat jotzen, baina zer pentsatua eman didatela onartu behar dut. Bi aipatuko ditut hemen, astunegi ere ez jartzeko:

Lehenak dio: *iristen den pertsona, pertsona zuzena da*. Horrek esan nahi omen du gure bizitzara ez dela inor kasualitatez iristen. Erlazionatzen garen guztiek laguntzen gaituztela aurrera egiten.

Bigarrenak, berriz, dio: *gertatzen dena gertatu zitekeen gauza bakarra da*. Bizitzan gertatzen zaizkigun gauza guztiak, baita zehaztasunik txikiena ere, ezin zitezkeela, inola ere, beste era batera gertatu. Beraz, alferrikakoa dela *hura horrela egin banu, edo beste halako hori, horrelakorik ez zen gertatuko* pentsatzea. Gertatzen zaigun guztia ikasten jarraitzeko omen da.

Ez dut inolako panfletorik egin nahi eta, gainera, *lege* hitza ez zait batere gustatzen, eta gutxiago kontu hauetarako, espiritualtasun legea hitzak sumisio puntu bat duela iruditzen zaidalako. Gogoeta egiten laguntzen duten esaldiak direla esango nuke nik, bizitzako momenturen batean era batera edo bestera lagundu gaitzaketenak. Hortxe uzten ditut ideia horiek, norberak pixka bat pentsatu dezan... beti ikasten jarraitzeko.

## Urratsez urrats

**S**arako Idazleen Biltzaren egokitu zait astelehena pasatzea, eta gogoan izan dut euskararen aldeko etengabeko borrokaren aurrean sentitzen dudan miresmena. Erraz ahazten dugu zein egoera tamalgarrrian dagoen euskara Iparraldean.

Ulertezina egiten zait hizkuntza bat estimatzen ez jakitea; are gehiago Frantziako Gobernuak, 1999ko hizkuntza gutxituen Europako Gutuna sinatu ondoren, erakutsi duen indiferentzia.

Egun berean aurkeztu dira, Frantziako hauteskundeetarako hautagaiak... Baten bat ez da gaurko egunaren zain egon lehenengo gezur hutsa botatzeko: orain dela gutxi Sarkozyri ihes egin zioten euskararen aldeko hitz batzuk; baina segituan zuzendu zituen, esanez kanpaina barruko hitzak bezala ulertu behar genituela eta ez gobernuaren ildoan kabitzen zirenak. Hollande ezkerreko hautagaiarekin itxaropen gehiago izango al dugu? Estrasburgon lau mila jarraitzailearen aurrean esan du prest legokeela euskara Konstituzioan sartzeko saioa egiteko.

Herri Urrats dugu ospakizunik ezagunenetako bat, maiatzaren erdi aldean. Gaur berean, euskararen aldeko beste urrats bat ere har litekeela dirudi.

Eaba...

**Oriora iristen naizen bakoitzean, beste gauza bat usaintzen dut: erritmo pausatua**



Orioko Ogia

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA  
frontal ondoan

Tfnoa: 943 83 01 89

HARTEGA  
**PATXI OLIDEN**  
PASTELERIA

Hamengo haragia,  
Eheko produktuak: tripa, olatzi,  
bakarra, txoritxo, kroketak...

**PATXI OLIDEN**

Eusko Gudari, 25 - Tel. 943 83 00 30

**Portu**

ERRETEGIA

Sarri Epeka Auzoa, 44  
943 89 44 34  
30809 AIA-ORIO

*kuartelko baxerako ondoan  
puzitako erretze eta baxerak*

**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantza kalea, 85  
30810 Orio (Gipuzkoa)

**SARASUA ERRETEGIA**

**Plater bereziak:**

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

iñaki argazkiak  
caperochipi

ezkontzeka asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

uranga

autozerbitzua

**Aliprox**

Eusko Gudari Kalea 13-15  
**ORIO**  
943 83 35 75

**TANATORIO ZARAUTZ**

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Alderoko zerbitzua
- \* Belatorio gelak
- \* Korcjak, eskolak, tranitzioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 80 40 37 / fax: 943 80 40 41  
e-mail: harnesp@harnespil.net

FSIOTERAPIA Gaitzeak Arretak eta Haldak Widesorrei  
FIZIOTERAPIA Gaitzeak Arretak

**sinergia** inbestigacion  
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oinx | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 85

943 83 09 86

**KOASTA**

Wifi zerbitzua

Kopak, dau giro sporta...

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

Igeltseritza

699 46 76 21  
943 13 10 37

**KOLON TXIKI**

karretxetako  
jostaketa

Herriko Erparantza, 4  
**ORIO**  
Tel. 943 83 00 44

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GOXOAK

ARRANTZA, 30810 ORIO  
Tel. 943 83 00 77

Lizaso  
dekorazioa

Eusko Gudari, 40  
Tel. 943 83 00 34 Fax: 943 83 00 30

**LOBETXU** JETETXEN

Eusko Gudari, 18 Tel. 943 83 00 07



## Gaia emanda

# El conquistador del fin del mundo

Joxe Luis Korta eta Manuel Lasarte, bi oriotar, izan dira realityaren aurtengo edizioan. Bata kapitaina eta bestea lehiakidea. **Han izandako esperentziaz galdetu diegu.**

## Egoeraren aurrean, alde egitea onena

**D**itu zidatenean proposamena luzatzen, ia amaitu aurretik eman nien baiezkoa. Honekin seigarren aldia dut Patagonian. Nire ilusioa beti izan da oihan batera joatea eta hango jendearekin elkarbizitzea; bizi guztia ez nuke han pasako, baina... Oporretara nora joango nintzatekeen galdetuta beti hala erantzun izan dut: oihan batera. Hala ere, *El Conquistador*-ek biziraupenetik baino gehiago du *reality*-tik.

Aurtengoa ez da hain polita izan... programan negarrez ateratzea orain arte inork hala ikusi ez nauenean... Taldeari hasieratik egin nion kale. 21 metroko altueratik egin behar nuen salto eta joan aurretik argi neukan oraingoan ez nuela salto egingo lepoko desgastea nuelako. Antolaketak ez du egiten hau batek galdu besteak irabazteko, baina badakite nire kontra eginez gero, asaldatu egingo naizela. Luzera, martxa egitea, programa bertan behera uztea, hobe izango zela pentsatu nuen eta hori egin nuen. Azkenean negarrez ateratu nintzen. Jendek esango zuten: *tipula begietan jarri eta malkorik ez zaio ateratzen eta...*

Lehen egunean talde berdea utzi zidaten eta Manuel ez zegoen han. Zerrendak aurrez eginak zeuden eta pentsatuko zuten nik kolorea hartzeko aukera izan banu berdea hartuko nuela eta haiek moldatzen dutenez,

uste dut, nahita ez zutela Manuel taldean sartu. Manuel txok aukeratu beharko balu eta hiru koloreetako bat horria izan balitz, dudarik gabe hura hartuko luke.

Kapitaina izatea ez da hain zaila. Hori etxean bertan ikusten da. Amak hiru seme baldin baditu iruditzen zaio batekin hobeto portatzen dela besteekin baino. Ez dago zalantzarik denei laguntzeko dagoela, baina bati errieta eginez gero... Hemen ere hori pasatzen da askotan. Baina ez daukat erreparorik. Pentsa

**ZIA**

zenbat urte diren entrenatzaile naizela egunero 20 lehoirekin, batzuetan katu bezala eta hurrengoan lehoiak bezala aritzen dira, eta zenbat eta konfiantza gehiago orduan eta gehiago erasotzen dute. Hori gobernatzeko gai naiz, baina aurten egoerak gainditu egin nau. Alde egin nuen, baina ez haserre. Hase-re joan banintz txistua joz aterako nintzateke.

Momentu onak ere izan dira. Agurreko momentu horiek bereziak izaten dira. Lagun handi asko egiten dira eta hori izaten da politena. Momentu txarrena taldekiderekin bat arriskuan jartzera koan izaten zen. Goseak egotea baino okerragoa da norbait etxera bidaltzea.

Iruditzen zait ez didatela berriz deituko, baina deituko balidate, auskalo zer erabakiko nukeen. Gainera, urtetan ere aurrera goaz; 40+23 ditut dagoeneko!

**Joxe Luis Korta**

## Gosea eta hotza ez dira kontrarioak

**B**etidanik gustatu zait bizirautea. Langabezian nintzela ikusita, andreari galdetu eta baimena eman zidan. *Castinga* egin nuen Donostiako Arantzazu hotelean eta aurrera egin nuen.

Hara ailegatzeko modu xelebreia izan genuen. Sumendi batzuen aktibitatearen ondorioz, hegazkina ezin izan genuen hartu Patagoniaraino, eta 32 ordu egin genituen autobusetik atera ere egin gabe. Hor lagunarte handia sortu zen eta horri esker elkarbizitza hobe izan zelakoan nago.

Goñik, nire kapitainak, tratu oso ona eman zidan. Ni Goñiri kontra egiten zion pertsona bezala tatzatu naute, baina momentu batzuetan nik pentsatzen nuena esaten nion eta hori izango zen jendeari halakoak pentsarazi dizkiona. Nik hasieratik soldadutza moduan hartu nuen programa, kapitainak agintzen duen tokian marinela ez duela ezer esatekorik pentsatuz.

Korta, bestalde, lehenbiziko proban uretatik azkena irten zen, Andoni izeneko lehiakide bat uretatik ateratzea tokatu zitzaizolako. Uretatik ateratzeko eskua luzatu nion eta *Egun on Joxe Luis!* batekin agurtu. Begiratu zuen behetik gora eta *Joño, Lasarte!* esan zidan. Manu Maritxalarrek eta Lujanbiok bazekiten han nintzela baina, agian, Kortak ez zuen jakingo ni han nintzenik. Sorpresa handia hartu zuen.

Momenturik onena, nahiz eta nahi gabe izan, proba irabazi nuenean izan zen. Larraitz izeneko lehiakide baten aholkuari esker irabazi nuen, bukatu ere egingo ez nuela pentsatzen nuenean. Alabari, familiari, arraun elkarteari... babesa eman didaten guztiei eskaintzeko aukera izan nuenean, huraxe izan zen momentu gozoena.

Txarrena, kalean geratu nintzenean noski. Nik ez dut uste une hartan hain gaizki aritu nintzenik, eta niri tokatu zitzaidan. Txarrena baino, tristeena izan zen.

**BOGA**

Han gogorrena ezer ez eta dena izaten da. Hotza eta gosea ez ziren bereziki gogorrak niretzat, zain egon beharreko tartekak izaten ziren okerrekin. Proba bat egin eta hurrengo proba bitartean tentsioan zaude eta ez dakizu zer gertatuko den.

Programan, Patagonian gertatzen dena ikusten dugu. Irudiak benetakoak dira. Baina gero, edizioan, edukien ordena aldatzen dute. Bi egun beranduago gertatutako zerbait, interesatzen zaien beste une batean txertatu eta halakoak egiten dituzte, audientzia mantentzeko trikimailu gisara.

Zalantzarik gabe bueltatuko nintzateke Patagoniara. Baina irabaztekoan, jarrera ezberdina izan beharko nuke, ez aurtengoa. Burua hotz eduki behar da, eta pixka bat pikarria ere izan behar da lehiaketa irabazteko.

**Manuel Lasarte**



Beñat Carretero eta Rita Aldabaldetrekuk osatzen dute Ri ta Karre bikote akustikoa. MUSIKA ZUZENEAN

# Akustikoaz ere gozatzen da

## Kritika Ri ta Karre

**Bikote akustikoa**, martxoaren 30ean Etxeluze gaztetxean emandako kontzertuaren kritika.

**M**artxoaren 30ean, ostirala izanda, kontzertu akustiko ederraz gozatzeko aukera izan genuen Etxeluze gaztetxean. Saioa hasi zain, inguruko herrietatik gerturatutako jende andana, freskuragatik edo artaldearen tankeran bil-bil eginda, agertokiaren atzealdean musikariak beren sabel eta ezterrak goxatzen zituzten bitartean...

Arrutiko Intxaurrekin, Zarauzko Anek hasi

zuen emanaldia, indarrez, ahots sendoaz, letra bihurri eta aldarrikapenez betetako abestiak fin interpretatuz. Tarteka, umoreari ere keinu egin eta bertsio ezagun batzuk abestuta, publikoarekin konplizitate polita lortu zuen musikari zarauztarrak. Saio ederraren ostean, ikuslegoa bizi-bizirik utzi zien ostean zetozen musikari gazteei.

Oholtzara igotzen hurrenak Ri ta Karre izan ziren. Mutil oriotarrak eta neska zarauztarrak osatutako talde akustiko bereziak, NOFX, Russian Red, John Frusciante, The Cranberries, Katamalo zein beste talde batzuen bertsio finak eskaini zizkiguten. Beñat Carreterok gitarraz sortutako oinarri goxoe-

tan, Rita Aldabaldetrekuren ahots atsegina gustura ibili zen gora eta behera, jolasean, tarteka berak ere gitarra nahiz ukelelea eskuan hartuta. Abesti pare batean, gainera, entzuleek Alba Carreteroren, Beñaten arrebaren, biolin-soinu ederraz gozatzeko aukera izan zuten. Musikari gazteak ahots eta gitarraren gainetik biolinarekin jotako melodiak oso ukitu berezia eman zieten abestiei.

Zoriontzekoa, idazten ari denaren iritzi xumean, bertan izan genituen musikariak oholtzara azaldutako gertutasun eta naturaltasunaz gain, eskainitako musika maila ederra. Segi fin!

[ IÑIGO GAITON ]

**Ikasleak idazle**  
Laida Dorronsoro

## Lapurtutako haurrak

**D**uela urtebetetik ari da zeresan handia ematen lapurtutako haurren auzia. Espainian hasi zen indarra hartzen, baina jada gurera ere iritsi da. Frantziakoan, eta baita ondorengo hamarkadetan ere, hainbat haur jaioberri lapurtu zituzten ospitaletan. Horren ondorioa da auzi horrek hartu duen indarra, familia asko oharu baitira senideren bat hila zutela esan zietela. Gipuzkoan, 133 kasu fiskaltzan daude eta 200 salaketa jarri dira.



Mediku, erizain, moja eta emaginek umea hilda zegoela esan, gurasoei lapurtu eta beste batzuei ematen zizkieten lapurtutako haurrak. Aurrez esan bezala, asko dira injustizia horren ondorioak jasari dituztenak eta kasu argitzeko asmoz agiri bila dabilzanak. Espero dut senide horien borrokari esker, dena argitzea eta gaizkileek merezi duten zigorra izatea.

**Mediku, erizain, moja eta emaginek umea hilda zegoela esan, gurasoei lapurtu eta beste batzuei ematen zizkieten**

**IGLESIAS  
SARRAILAGILEAK**

Javier Iglesias Fernández  
**637 723 308**  
iglesias@seguros@bilbao.es  
**24 HORAS  
SERVICIO**

**24 HORAS  
SERVICIO**

- ATAK BIKITZEN DITUGU
- SARRAILA-XELOWO ALDAPETAK
- ATAK DITOKI MALKOIKI ALDAPETA
- KOMUNITATETIKO ZERBITZUA

**Santi Barranco aseguru agentea**

Aritzaga 2. 2. edifizio ORIO

Tf: 618 561 388 - 659 218 221    e-posta: sbarranco@seg.fortitxao.com

---

**SEGUROS BILBAO**    Grupo **CATA, ANA OCCIDENTE**

## » OSPAKIZUNA



## Unai eta Julen

Gustura dabil Julen Durandegi txikia jaio berri den anaiarekin, Unairekin, etxean. Nahi adina mimo egiten dizkio eta Mikel Durandegi eta Rakel Delgado gurasoak ere pozik daude martxoaren 31n jaiotako bigarren semearekin. Gurasoak donostiarrak badira ere, txikiak oriotarrak dira. Askok ezagutu ez arren, kiroldegian sarri ikusten da bikotea herriko gaztetxoak entrenatzen.

## » INKESTA

## Zer irudituko litzaizuke azoka ikastola aurreko plazatik Herriko Plazara itzultzea?

295 erantzun jaso ditu galderak. %87 alde agertu da, %11 kontra, eta %2k ez daki zer esan gai honen inguruan.



### HURRENGO GALDERA

## Zer iruditzen zaizu Herriko Plaza asteburu eta jai egunetan oinezkoentzat bakarrik izatea?

Erantzun ezazu [www.karkara.com](http://www.karkara.com) webgunean eta emaitza 317. Karkaran argataratuko dugu.

## » ZORIONAK!

## Mendi lasterketaren antolatzaileei

**H**alako probak antolatzeara ekartzen dituen zailtasunak jakinak dira, eta are zailagoa izaten da gaur egun lasterkariak gustura uztea.

Denbora gutxian bi proba izan ditugu bi herrietan, Aian lehendabizi eta Orion gero. Lasterka aritu zirenak ez ziren izan baina pozik gelditu ziren bakarrak. Herritar askok ere gustura hartu dituzte

lasterketen aitzakian txukuntutako bideak.

Askorentzat, gainera, bide hauek berriak dira eta herrian bertan *betiko* ibilbideetatik ateratzeko ongi etorri zaizkie.

Horrez gain, lasterketa pasa eta gero txukun gelditu dira inguruak. Korrikalariek, ikusleek eta antolatzaileek ingurua errespetatu dute eta ez da zaborrik pilatu bazterretan.

Horregatik guztiagatik, gure zorionak eman nahi dizkiegu lasterketa hauek antolatzen ibili diren bolondres guztiei.

**LURDES**  
burdindegia

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

le sgaridiega  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**PERTSTANAK**  
A K O M A Z

Audiak, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 81. Muzikaria 600 70 52 77

**SOLOZABAL**  
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk.  
telefon: 943 83 05 12

**MIRANDA**

tortxa, alo, tosta, eskafeta...  
behar diru urte larri.  
eguzko lokarri

Udako bidea. t. 969 42 32 70 - ZARAUTZ

**ODITZ**

Primo eskolako auzolariak  
gurekin batera

Tel. 943 83 00 89

**URAITZ**  
burdindegia


Eusko Gudari, 7 - Tel. 943 83 16 57

**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta errentuntak

Tel. uranga@euskalnet.net  
telefono: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5





Juan Jose Andutxiki, Antonio Campos eta Gabriel Gurrutxaga; aurrean, J. Mari Karrera. 1964 inguruan. ARTXIBOA

# Bi automobil erreta, Orioko kalean

## Oroimenaren kutxa

1976ko apirilaren 16a zen, Ostiral Santua. Martxoan, Espainiako poliziak 5 langile hil zituen Gasteizen, ministro Fraga zela. Aurreko urtean, Txiki eta Otaegi fusilatu zituzten. Berrogei urte lehenago, 1936an, gerra bat hasi zuten.

Ostiral Santu hartan, gaueko ordu bata aldean, marruek esnatu zuten oriotar gazte bat. Ohetik jaiki, leihotik begiratu eta bere autoa sutan ikusi zuen kalean, erretzen. Kalera jaitsi eta, beste batzuekin batera, baldeekin ura botaz itzali zuten sua. Autoa kiskalita zegoen. Antonio

Campos zen haren jabea.

Bi guardia zibil agertu zitzaizkien hondartza aldetik. Galdera xelebrea egin zuten, ea bala-zorrorik agertu ote zen. Erantzun zitzaien ezetz, nolaba, tirorik ez zen izan eta! Biharamunean, bultzaka, autoa errastitarren tailerrera eramane zuten. Garbiketean hasita, pistola baten bala-kargadorea agertu zen autoan. Garbi zegoen dena: norbaitek pistolaren kulatarekin kristala apurtu, barruan gasolina bota eta su eman zion, eta kargadorea barruan erorita bertan geratu zen.

Auto hura ez zen izan gau hartan Orioko kalean erretako bakarra, Juanjo Lertxundi Andutxikirena ere erre zuten. Antonioren, Sarasua errete-

giaren parean; Andurena, Dorronsoroneko aurrean.

Kasu hartan, guardia zibilen lana izango zen, noski, kasua ikertu eta errudunen bila abiatzea. Ez zuten egin, gertuegi zeuzkaten, etxean bertan.

Andutxiki, abokatu izaki, ibili zen epailearenean. Hark garbi esan zien: alfer-alferrik zabiltzate, ez dago zer eginik, onena ahaztea duzue. Franco hil berria zen, artean ez zen ezertxo ere aldatu. Guardia zibilek indar handia zeukaten, haien kontra ezertan hasteko. Bi oriotar gazteek ez zuten ezer egin. Badago bai barkamena zerena eskatua eta ezer barkatua, badagonez!

[ IÑAKI TURAIN ]

## » JAIOTAKOAK

■ Nahia eta Amets Makazaga Etxaniz, Orion, martxoaren 20an.

## » EZKONDUTAKOAK

■ Ez da ezkontzarik egon.


## » HILDAKOAK

■ Eugenio Lasa Aiestaran, apirilaren 3an, Orion, 88 urte.

■ Dionisia Mugika Lazkano, apirilaren 2an, Orion, 85 urte.

■ Aurelio Garmendia Etxeberria, apirilaren 1ean, Orion, 69 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



tel/fax: 943 89 00 69  
Eskola kalea 4 28100 ZARAUZ  
**URBIDE**  
ITURGINTZA BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA

**XABIER URRETABIZKAIA**  
- Instalazio elektrikoak  
- TDT antenak  
- Atezin automatikoak  
60 urte zerbitzua ematen  
943 83 17 74  
Arrieta kalea, 31 48110 OIHO

**ASADOR XIXARIO**  
Zarautza Kalea, 11  
Tel. 943 83 11 18

**Zaragueta Eskola Orio**  
telefonoa: 943 85 48 52  
e-mail: 012137aa@hozkurtxa.net



KARKARA

# “Helduak aintzat hartuz gero, umeak hobeto hazi eta biziko dira”

**Ainara Tomasena, Aitziber Indart eta Garazi Elortza**

Ingema Institutuko teknikariak

*Gaztea lanera, zaharra atsedenera*, dio esaerak; baina elkarlanean jarritz gero, emaitza politak lor daitezke. Hori da, hain zuzen ere, herrian hainbat proiektu abian jarritz lortu nahi dutena: belaunaldien arteko lotura. Horretan ari dira hiru lagunok.

## IRATI AGIRREAZALDEGI

Matia Fundazioaren Ingema Institutuko teknikoak dira Ainara Tomasena, Aitziber Indart eta Garazi Elortza. Belaunaldien arteko proiektuak egiten ari dira, adin guztietako herritarrak elkarrengana gerturatzeko asmoz.

### Zein da zuen egitasmoa?

Ikerketek diote belaunaldiak elkarrengandik zenbat eta gertuago egon orduan eta hobe gaudela gizarte osoa. Jendeak, erretiroa hartzen duenean, badirudi, lan guztia egina duela eta bere esperientziak ez duela balio. Baina asko dute irakaste-

ko, eta balio pila bat transmititzeko. Helduak aintzat hartuz gero, umeak hobeto hazi eta biziko dira. Horretarako proiektuak jarri nahi ditugu abian eta belaunaldien arteko eguna antolatu.

### Zein proiektu egingo dituzue?

Antzinako eskola materialekin erakusketa bat egitea da lantzen ari garen ideia. Ikastetxeetako umeak, guraso, aiton-amona edo lagun helduekin garai bateko koadernoak, liburuak, eskolako argazkiak... bilatu eta horiekin egingo genuke erakusketa. Garrantzitsuena da herriko jende guztiak parte hartzea eta sentsibilizatzea.

### Beste proiekturik baduzue?

Garai bateko jolasak jaso nahi ditugu eta baratzen inguruan ere zer bait egiteko asmoa badago. Bestalde, Ikastolako eta Zaraguetako ikasleek Eguneko Zentrokoekin hainbat ekintza egiten dituzte elkarlanean. Batzuk Eguneko Zentrora joan, nola egiten duten ikusi, eta beste egun batean helduei, monitore eran, laguntzen diete. Besteek, jai giroko ekintzetan laguntzen dute: mozorro festan, kantuan, poesia errezitaldian...

**“30 urtetik 60ra artekoengana heltzea da zailena. Ekintzetan beren umei jarraituz gero baliteke horien inplikazioa ere lortzea”**

“Garai batean, balioen eskualdatzea eta belaunaldien arteko lotura sakonagoa zen. Gaur egun, bakoitza bere kasara ibiltzen da”

### Martxan dauden proiektuak nola doaz?

Herria oso sentsibilizatuta dago gaiarekin, baina gure nahia da proiektuak zabaltea eta denak egitasmo bakarrean batzea jendeak horien berri izan dezan.

### Zein jende hartzen du parte?

Esperientzia eskolakoek –65 urtetik gorakoak–, ekintza guztietan hartzen dute parte. Gazteen jarrera ere oso ona da. Ekintza bat bukatu orduko, errepikatze gogoaz azaltzen dute. 30 urtetik 60ra bitartekoengana heltzea da zailena. Horiei esan nahi genieke ekintzetan beren umeak jarraitzeko eta horrela baliteke horien inplikazioa ere lortzea.

### Horretarako belaunaldien arteko eguna antolatzen ari zarete, ezta?

Maiatzaren 26an egingo dugu eta ekintzetan belaunaldi bateko zein bestekoek parte hartuko dute, mugak gaudituz. Prestatzen ari gara eta ideiak gustura jasoko genituzke, telefono zenbaki hauekin: 943 224 643 edo 646 098 753.

### Proiektuek zein onura ekarriko dute?

Belaunaldien arteko harremanak aberastasuna dakarkio herriari. Garai batean, balioen eskualdatzea eta belaunaldien arteko lotura sakonagoa zen. Familiaren denak elkartuago bizi ziren. Gaur egun, bakoitza bere kasara joaten da. Helburua da denak berriz elkartzea.

### Zein zailtasun dago hori lortzeko?

Jendearen ohiturak aldatzea da zailena. Egunerokotasunean beti jende berarekin izaten ditugu harremanak eta kosta egiten zaigu besteenganako pausoa ematea. Emanez gero, ohartuko ginatke zein erraza den jende gehiagorekin gustura egotea.

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokatzeko**

■ Neska oriotarra pisukide bila, Orion etxea alokairuan hartzeko. Tf.:645 707 547.

**Saltzeko**

■ Eraberritutako hiru logelako etxea eta trastelekua salgai Eusko Gudari kalean. 234.395 euro. Tf.: 636 386 663/ 607580 841.  
 ■ Kale Nagusiko 25. zenbakian etxebizitza berria salgai. Sukalde-jangela, logela, bainugela eta trastelekua ditu. Altzariekin. 195.000 euro. Tf.: 616 749 324.  
 ■ Mutilarentzat jaunartzeko jantzia salgai. Marinel arropa zuria. Neurria: 11. Tf.: 620 539 945.  
 ■ Michelin energy 175/70

R 13 bi gurrpil-azal salgai. Parea 95 euro (merkatuan 63 euro bakoitza). Oso egoera onean, ia berri-berriak. Tf.: 696273435.

**Lan eskaera**

■ Neska oriotarra etxeak eta eskaratzak garbitzeko prest. Tf.: 666 036 780.  
 ■ 19 urteko neska, magisteritza ikaslea, udaran haurra zaintzeko prest. Goizez zein arratsaldez. Tf.: 688695648 (Ainhoa).  
 ■ Emakumea adineko edo umeak zaintzeko prest. Tf.: 637 967 705 (Xochilt).  
 ■ Neska euskaldun oriotarra lanerako prest: garbiketala lanetan, ostalaritzan... Tf.: 665 455 636.  
 ■ Aiako mutila edozein lanetan aritzeko prest: garbi-

keta lanetan, baserrian... Tf.: 615 233 534 (Iban).  
 ■ Neska arduratsua eda detuak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketala lanak egiteko ere. Etxean bertan bizitzeko prest. Tf.: 610 147 291 (Sadia).

**Lan eskaintza**

■ 6 eta 7 urteko bi neskari, etxean, ingeles eskola dinamikoak emango dizkien norbait behar dugu. Tf.: 618 911 008 eta 618 911 014. (Eba eta Joseba).  
 ■ 18 urteko mutil kolonbiar etorriberriak eskarazko klase partikularrik hartuko lituzke, uda bitartean. Ahal bada, Orion. Prezioak-eta adosteko. Tf.: 666 116 641 (Damian).

» ITSASOIA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
13	10:42 eta 23:13	04:16 eta 16:41	☾
14	12:07 eta ____	05:33 eta 18:01	☾
15	00:38 eta 13:29	06:55 eta 19:21	☾
16	01:53 eta 14:34	08:06 eta 20:26	☾
17	02:52 eta 15:23	09:01 eta 21:17	☾
18	03:39 eta 16:03	09:43 eta 21:58	☾
19	04:18 eta 16:38	10:19 eta 22:34	☾
20	04:53 eta 17:09	10:52 eta 23:08	☾
21	05:25 eta 17:40	11:24 eta 23:41	☾
22	05:55 eta 18:10	11:55 eta ____	☾
23	06:26 eta 18:40	00:14 eta 12:27	☾
24	06:57 eta 19:12	00:47 eta 13:00	☾
25	07:30 eta 19:45	01:22 eta 13:34	☾
26	08:06 eta 20:22	01:59 eta 14:11	☾
27	08:47 eta 21:07	02:41 eta 14:54	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

APIRILA  
 ■ 13an, Lasa  
 ■ 14 eta 15ean, Zulaika.  
 ■ 16an, Etxeberria.  
 ■ 17an, Gallo.  
 ■ 18an, Mutiozabal.  
 ■ 19an, Zulaika.  
 ■ 20an, Gallo.  
 ■ 21 eta 22an, Larrañaga.  
 ■ 23an, Gallo.  
 ■ 24an, Iriarte  
 ■ 25ean, Zulaika.  
 ■ 26an, Azaldegi.  
 ■ 27an, Larrañaga.  
 Gauetako zaintzako botika: Zulaika

**Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz  
**Etxeberria:** Gipuzkoa, 17. 943 83 23 98 Zarautz  
**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz  
**Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz  
**Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio  
**G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz  
**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz  
**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>	
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25		10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25		16:25	17:25	18:25		19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45		10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45		16:45	17:45	18:45		19:45	20:45	21:15
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira





## Kontzertu pedagogikoa

Apirilaren 26an, Alos Quartet soka taldearen kontzertu pedagogikoa izango da Orioko Kultur Etxean, 17:30ean. Xabier Zeberio, Francisco Herrero, Lorena Nuñez eta Pello Ramirezek osatzen dute taldea eta sokazko musika tresnen soinuei buruzko azalpenak eman ondoren, tresna horien historian barrena musika ibilaldia egingo dute musikariek eta entzuleek, Antzinarotik egungo garaietara, Errenazimendutik pasata.

## Aia

### Erromeria

■ Apirilaren 15ean. Erromeria Arkaitz Allur eta Idurre Arriola trikitilariekin. Apirilaren 22an, Ansorregi eta Larrañagarekin. 18:30etik 21:30era, Aristerrazu plazan.

## Orio

### Ikastaroa

■ Apirilaren 14an eta 15ean, Chikung CFQ -norberaren sendatze sistema- tailerra, Mandalara taldeak antolatuta. 09:30etik 14:30era, Kultur Etxean.

### Informatika

■ Apirilaren 23an, Gmail ikastaroa. 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.  
 ■ Apirilaren 25ean, oinarrizko OpenOffice ikastaroa. 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.  
 ■ Apirilaren 26an, OpenOffice ikastaro aurreratua. 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.  
 ■ Apirilaren 19an eta 24an, IT txartela ateratzeko azterketa. 16:00etan, KZgunean.

### Afaria

■ Apirilaren 21ean, 1956-1957an jaiotako en Lehen jaunartzeko afaria, Sarasua jatetxean. Izena emateko: Loretxu, Gabon, Arkaitz edo Sarasua tabernetan.

### Azterketak

■ Apirilaren 28an, Orioko Udaleko udako lanpostuak betetzeko azterketak: kanpinoko zaindaritarako, hondartzako kabinen garbiketarako, kanpinoko komunen garbiketarako eta udaltzain laguntzailetarako. 09:00etan, Kultur Etxean.

### Kontzertuak

■ Apirilaren 13an, Donostiako Wheels taldearen -Mikel Antero, Sergio Villar, Gustavo Gonzalez eta Manu Gestido- pop-rock kontzertua. 23:00etan, Salatxo tabernan.

■ Apirilaren 20an, The Romanticos taldearen -Iker Piris, Fernando Neira eta Hasier Oleaga- blues eta funky kontzertua. 23:00etan, Salatxo tabernan.

### Erakusketa

■ Apirilaren bukaerara arte, argazki erakusketa. Patxi Garcia eta Mari Jose Salazar argazkilarien paisaia argazkiak eta erretratuak. Salatxo tabernan.

### Artisautza azoka

■ Artisautza azokarako izena emateko azken eguna apirilaren 20a. Izena emateko Kultur Etxera jo behar da. Azoka eguna: maiatzaren 13a.

### Bilera

■ Apirilaren 16an, sanpedroak antolatze bilerak, 18:30ean, Kultur Etxean.

### Odol-emaileak

■ Apirilaren 19an, odol-ateratzea. 18:30etik 20:30era, sendagilearen etxean.

### Ibilaldia

■ Apirilaren 21ean, ibilaldi gidatua Pagoetako Parke Naturalean. Ibilbidea: Lukun, Iturrarango Lorategi Botanikoa, Presa Berri, Agorregi, Manteola, Iturraran eta Lukun. Helduak 5euro, umeak (5-12 urte) 3 euro. Irteera: 09:30ean, Lukuneko aparkalekua.

### Idi probak

■ Apirilaren 30ean. Idi proba apustua. Elkarren aurka: Aiako Patxi Arzadun. Karreteroak: Patxi Arzadun eta Iñaki Urrutia; eta Aiako Jose M. Iruretagoiena *Izeta*. Karreteroak: *Izeta* eta Luis Arregi *Lopene*. Jokoan 1.500 euro. 22:00etan, Aiako probalekuan.

